


Esker ona seme eta alaben biziagatik

Esker ona adieraziko dugu gure seme eta alaben biziagatik. Horien adinaren arabera, partaidetza era batekoa edo bestekoa izango da; dena dela, guztiek, txiki nahiz handi, beren aukeren arabera parte har dezatela da asmoa.

Zatar-paper handi bat jarriko dugu lurrean; eguzkia marraztu eta gainean Jesus hitza idatziko dugu. Haurrak oso txikiak badira, etiketa (gomet) horiak paperean itsasteko eta, horrela, eguzkiari kolorea emateko eskatuko diegu. Nagusiagoek Jesus hitza margotuko dute.

Kandela batzuk ere izango ditugu lurrean. Taldeko mutiko edo neskato bakoitzarentzat kandela bat ipiniko dugu bere izenarekin.



Helduei, otoitzaren gidoia jasoko duen orrialdea banatuko diegu.

Hasi egingo gara...

Eguzkia marraztu, gometak eta margoak banatu eta zer egin behar duten esaten diegun bitartean, musika gozoa entzungo dugu...

Partaideetako batek Mateo 5, 13-16 txatala irakurriko du. "Zuek zarete munduarentzat gatza..."

Tarte bat utzi eta, ondoren, idazkiak zer diotsen esateko eskatuko zaie partaideei, zer adierazten dien irudiak, aitatasun-amatasun esperientziak, taldean izatearen esperientziak... Musika jarriko dugu guzti hau hobeto barneratzeko...

Isilunea egin ondoren, gure sentimenduak, hausnarketak... batera jarriko ditugu. Bitartean, haurrek gometak itsasten eta margotzen jarraituko dute.

Elkarrekin egingo dugu gidoian agertzen den otoitza. Haurren izenak ezateaz batera, gurasoak kandelak dauden lekura hurbilduko dira hurrekin, beren seme-alabari dagokion kandela hartuko dute, piztu eta aldarean (mahaian... otoitza non egiten dan kontuan hartuta) ipiniko dute.

Amaitzeko, "*Jesús dago nire bihotzean*", abestia kantatuko dugu, keinuez lagundurik.

(Hemen entzun daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=-BaDub1loUs>)



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

